

Bazka sarien tratuak

E.: eta artzain bezala gero bortutik beherea joan bear zinutelarik, noiz egiten zinituzten tratuak, nola atxemaiten zinituzten bazkak?

B.: ba, joan behar, larrazkenian oai, sasoin untako asten zien, Orbaizetan bazen sekulako artzaiñ aldia ordian, eldu zien Hazparne itzuli oitaat, ta etxetan iten tratiak neguko, ta guk e gauza bera, bear ginien lekiak arrapatu, nunbaiteko bazkaz, edo erosi, edo oai, buruilian iten zien tratiak, belarrak eta souak eta in ondoan, kusiz zenbat bazka zen ta ola, orduko modak ola zien.

E.: eta nola karkulatzen zen hori? Nola iten zen?

B.: ah ba, negian bear da noapait joan, ez xu egoiten aal emen, bear txu neguko prekozioniak hartu, hara.

E.: bena pagaazteko, zertan finkatzen ziren jabeak?

B.: jabeak, jabeek galditen zuten aniz sos, eta ordian tratian artzen zien artaiñak, ez zela anbeste paatzen al eta hek e kexatzen, angriak eta denak kario ziela izigarri, ta ek e obliatiak ziela kario saltzea, ta iten zen tratia, ara.

E.: ta aipatzen zinuten ori artzainen artian, ta zonbat paatzen zen, edo arrunt ixilian iten zen gauza at zen?

B.: ez, ez, ez, aipatzen elgarri, ba, gero baziren, izan dira memento atzu beste artzain batek xure bazkak joan eta izilka, joan eta joiten zitin prezioak goro, ordian, nausiak ari emaiten ta ez kontent artzaiña, hori re izan da memento atez. Oai ez xu, ez xu ageri leen bezala. Beste artzain batek xu xinen, aitzineko negian xu xinen lekian nai zixin sartu, ta joaiten zen ta sosa geio emaiten, bazen, nunbaitik baziakixun zonbat paatzen zitien, artzaiñak, eta ola.

E.: hori dena ahoz egiten zen, ez zen sekulan izkiatzen deus?

B.: ba, anitzek iten zuten, ba, neguko tratia unbestetan, maiatzain leen artio, edo iten zuten zonbaitek han, zortzi edo hamar artio, hamar egun geio, edo olaxe, oai beantian ori, leeno, bestenez, legia zen bear zen maiatzain leenian partitu, bear zitxien pentziak eta in, belarrak eta souak iteko bear zen utzi hein batian, leengo legia zaharrek ola zuten, bear zen utzi, maiatzain leenian bear zen partitu goiti.

E.: eta noiz pagatzen ziren bazkak eta...

B.:partitzian, maiatzain leenian.

E.: ordu artio deus.

B.: ez, ez, ez, maiatzain leenian partitzeko, edo eun batzu leentxoo edo paatzen zien.

E.: dena sosez.

B.: ah ba, ba, ordian ba, ez zen denbora etan, ez zen txekeik e nik uste iten, ez dut uste, geo ba, geo beanto, ba. Gero bazien nekez artzen zienak, bazien... Bazien galditen zutenak parte bat eman sosa, eta beste parte at hola ardiak moxtu ta iliak saldu, ta ordian iten baitzen sos puxka at iliakin e, ta: “ez duka iten aal kredita iliak saldu artio” edo olaxe, beantxo emaiten zuten zonbaitek, ez baitzen ordian e, ez baitzuten aise iten paatzeko.

E.: eta normalki, edo gehienetan, artzaina leku berea joaiten zen bazkaz?

B.: ahalaz ba, aalaz ba, ezautu leku artaat.

E.: eta inguruan ziren bazkak? Aipatu duzu... Aipatu duxu, beraz, Hazparne, nun ibili xira pixka at bazk... Bazketan?

B.: ni ene denboran, hori, Hazparden egon niz mutil bestendako, ta niaun gain asiz geo nik parteik haundiena Xuberoan, Xuberan emaiten nitxin, etxe batian zarri txit hamazazpi urtez etxe berian, eta ordian baitzen ardi alde at, berreun bat pasa-edo, ordian, etxe... Hamazazpi urtez in txit etxe atian laatan oita hamar ardi artzen zuzten hek, eta beste gaineatekoak batian berrogei, bestian oita amar, eta olaxe, etxe... Xekatu bear etxetan harzaliak, hartzen zuztenak ola, ara.

E.: eta gero ibili behar ardien ikusterat, neguan zear.

B.: a ba, negian ba, joaiten ikusterat, ta...

E.: bazkatzerat, eta...

B.: ez bazkatzera ez, ikusteat, ikusteat, ta geo iten gintin kondizioniak: unenbeste arditan unenbeste bildots hazi, ta heen markatzea ta joaiten ginen, heen markatzea pasaian negian, ta olaxe artetan een markatzea pasaian negian, ta olaxe, artetan emeia ginilaik ikustea, ta ola. Eendako zuxun unenbeste bildots guretako, enetako, eta bildots gelditzen zien bildots hek guziak eendako, ta esnia maiatzain leen artio saltzen zuten, eendako zen, kondizioniak ola zitxun. Aldiz, beste artzaiñek etxetan erosten zuten negu guziko kapital bat eman ta dena berendako zuzten, ek sos ua zuten maiatzain leenian eman bear, kapital hitz eman ua, ta esnia eta bildotsak eta artzaiña, berak in bear zixin han, bazuxun etxe artan artzaiñain ganbara eta bizia, tratu hain barnian, ta geo denak, bildots guziak berak nai zinak azi, ta bestiak saldu, eta esniak eta denak berak saltzen zitxin, artzaiñak, ara.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala